GERNIKA-LUMOKO UDALA
Hezkuntza Saila

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA (HPS)

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

GERNIKA-LUMO • 2007 URTEA • BIK - Seigarren Idazlan Koadernoa • LEHEN HEZKUNTZA



**GERNIKA-LUMO**
**2007 urtea**

# SEIGARREN IDAZLAN KOADERNOA

**Lehen Hezkuntza**

**Argitaratzailea:**

- Gernika-Lumoko Euskera Zerbitzua eta Hezkuntza Saila

**Laguntzaileak:**

- Allende Salazar Ikastetxea
- La Merced Ikastetxea
- San Fidel Ikastola
- Barrutia Eskualde Ikastetxea
- Seber Altube Ikastola

**Portadaren egilea:**

- Hanot Irakulis (DBHko 3. mailako ikaslea)

**Babesleak:**

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskera Zuzendaritza)

**Maketa eta Inprimaketa:**

- BEREKINTZA

**2007ko edizioa**

# HITZAURREA

Bai adiskideok. Eskola munduan irakurzaletasuna eta idazmena sendotzea helburu izanda, ekiten deutsagu urtero Idazlan Koadernoen zita honeri, VI.a aurtengoa.

Idazlan Koaderno honeek, baina, ikastetxeko esparruan iztea pekatua da. Zergaitik? Helduok geure burua eredutzat daukagulako ume eta gaztetxoentzat eta, azken bolada honetan behintzat, euskerearen kontuagaz alderantziz gertatzen jakulako argi eta garbi.

Datu serioak badira be, ekarri behar doguz hona euskerearen erabilerari buruz egin den kale neurketako datuak: umeen artean %72,9, gazteen artean %69,2, helduen artean %30,3 eta adinekoen artean %53,5. Erabilerari zulo baltza helduok egiten deutsagu eta umeak eta gazteak, ostera, nagusi.

Pertsona helduok VI. Idazlan Koaderno honeek eredu izan daiguzala dakigun euskerea praktikan ipinteko eta eredu daiguzala baita bidean izan dan irakasle eta ikasle guztien lan eskerga.

Marina Abadia Arraibi
Hezkuntza Arloko Zinegotzia

# AURKIBIDEA


| | | | |
|---|---|---|---|
| MIKEL IBARRA GARDOKI | L.H. 1. zikloa | "Kampaia eta Zikoina" | 5 |
| IRAIDE ZABALA | L.H. 1. zikloa | "Jirafa txikia" | 6 |
| BEGOÑA LÓPEZ LAUZIRIKA | L.H. 1. zikloa | "Foka tristea" | 8 |
| BEÑAT BILBAO LANDA | L.H. 1. zikloa | "Laku magikoa" | 9 |
| ANE OLAETA ETA XABIER ZARRABEITIA | L.H. 1. zikloa | "Dinosauro belarjalea" | 11 |
| ANAITZ GARCIA LARRUZEA | L.H. 1. zikloa | "Mutiko baten ilusioa" | 13 |
| ALIZE OLAZAR INTXAUSTI | L.H. 1. zikloa | "Katua" | 15 |
| OIER ALBERDI RODRIGO | L.H. 1. zikloa | "Lepoluze-tapaukaluze" | 17 |
| IMANOL ZILUAGA ESTEBAN ETA ANDER EGIARTE SÁNCHEZ | L.H. 1. zikloa | "Tigre txikia" | 18 |
| ELENE EGIARTE ETA BEÑAT FERNÁNDEZ | L.H. 1. zikloa | "Txispas eta hegazkin berria" | 20 |
| ANE BELÉN RUIZ LEJARCEGUI | L.H. 2. zikloa | "Elena, herensuge aurkitzailea" | 21 |
| XABIER BENGOA BILBAO | L.H. 2. zikloa | "Zirip iratxo magikoa eta Madam sorgiña" | 24 |
| NEREA AREJITA ABAITUA | L.H. 2. zikloa | "Biolontxelo magikoa" | 26 |
| MIKEL PORRAS LARRINAGA | L.H: 2. zikloa | "Busturialdeko angulak" | 28 |
| HEGOA IBAZETA ETA GARAZI URIONA | L.H. 2. zikloa | "Amazoniako misterioa" | 31 |
| GAROA MUSATADI IRAZABAL | L.H. 2. zikloa | "Piratak eta izurdeak" | 34 |
| JOANE ABERASTURI AKAITURRI | L.H. 2. zikloa | "Marrubitan!" | 36 |
| LEIRE GORRITI | L.H. 2. zikloa | "Joseren denda txikia" | 39 |
| AINHOA ZARRABEITIA, OLATZ ARRIZABALAGA ETA PAULE URRUTXUA | L.H. 2. zikloa | "Berdel apoa" | 41 |
| ANA ARAMBURU IBARLUCEA | L.H. 2. zikloa | "Lirina gitarratxoa" | 43 |
| EDUARDO CAÑON BASABE | L.H. 3. zikloa | "Kiru egiptiarra" | 45 |
| TXANTON FREUNDLICH ZUBIAGA | L.H. 3. zikloa | "Saturnoren Eraztuna" | 48 |
| MILIA ORTIZ DE PINEDA TRABUDUA | L.H. 3. zikloa | "Mendian" | 51 |
| ENEKO IZAGIRRE | L.H. 3. zikloa | "Agurea eta astoa" | 54 |
| MARÍA ÁLVAREZ RIVAS | L.H. 3. zikloa | "Amatxo, hartuko dugu katutxoa etxean?" | 57 |
| MARTÍN ELGUEZABAL | L.H. 3. zikloa | "Liburu misteriotsu bat" | 60 |
| AITZOL ONAINDIA ALBERDI | L.H. 3. zikloa | "Iturburuko ur misteriotsuak eta lamiak" | 63 |
| BIHOTZA URBERUAGA | L.H. 3. zikloa | "Lur eta Eguzki" | 67 |
| JULEN ORDORIKA ETA AGER LAZAGA | L.H. 3. zikloa | "Sesenar egipziarra" | 70 |
| MIKEL CONDE DURÁN | L.H. 3. zikloa | "Erregina gaixoa" | 72 |



# MIKEL IBARRA GARDOKI

**L.H. 1. zikloa** * "Kampaia eta Zikoina"

[ Osabaren moduan, medikua izatea gustatuko litzaidake ]

Kanpaia eta zikoina

Herri txiki batetako elizako dorrean brontzezko kanpai bat zegoen.
Goiz batean zikoina zuri eta polit bat iritsi zen herrira.
Elizako dorre izugarri hura ikusi zuenean pozik jarri zen.
– Kaixo kanpai maitea! – esan zion zikoinak kanpaiari.
Zikoinak bere bidaietan ikusi zuen guztia kontatu zion.

Zenbat abentura!





# Iralde Zabala

**L.H. 1. zikloa** * "Jirafa txikia"

[ Marrazkiak egitea gustatzen zaizkit ]

## Jirafa Txikia

Bazen behin jirafa txiki bat. Egun batean tximeleta baten atzetik joan zen eta galdu egin zen. Txikia zenez bere amak ez zuen aurkitzen eta txori bateri laguntza eskatu zion. Biak jirafa txikia bilatzen zeuden baina ez zuten aurkitzen. Bien bitartean jirafa txikia tximeleta politaren atzetik zegoen, lehoi bat ikusi zuenean. Jirafa txikia negarrez zegoen oso beldurtuta zegoelako. Halako batean koba bat ikusi eta ber tara sartu zen. Lehoiak jirafa txikia bistaz galdu zuen eta orduan alde egin zuen. Denbora gutxira jirafa txikia kanpora atera zen ama bilatzera. Ohiuka hasi zen:

-Ama! ama!

Amak entzun egin zituen bere ohiuak eta azkenean aurkitu zuen.


Biok besarkada bat eman ziren eta oso pozik
bizi ziren. Hortik aurrera jirafa txikia eta bere
ama ez ziren inoiz hurrundu.



# BEGOÑA LÓPEZ LAUZIRIKA

**L.H. 1. zikloa** * "Foka tristea"

[ Animalia Mundua gustoko dut eta euretaz liburu ugari dauzkat ]

Foka tristea

Zirkuan foka polit bat bizi zen, baina
arazo bat zuen triste zegoela. Zirkua kar-
tzela bat zela pentsatzen zuen eta berak
Iparpolora joan nahi zuen bere aita eta ama-
rengana.
Egun batean zirkuko emanaldia ari zela
mutiko bat ezagutu zuen. Emanaldia amaitu
zenean mutikoa fokarengana joan zen eta
hain triste ikustean laguntzea erabaki zuen.
Mutikoak kaiolatik askatu zuen eta itsaso
ondoan zeudenez foka igeriketan Iparpolora
joan zen.





# Beñat Bilbao Landa

**L.H. 1. zikloa** * "Laku magikoa"

[ Batak bestearen enbidiarik ez dugu eduki behar ]



Laku Magikoa

Behin batean bazen gizon pobre bat, herrian oso baztertuta bizi zena.

Egun batean joan zen basora fruitu lehorrak biltzera. Hain nekatuta zegoenez atseden hartzeko leku baten bila hasi zen, han ikusi zuen laku bat. Bertara joan zen arropa garbitzera; eta arropa sartu zuenean aberats baten arropa bezalakoa atera zitzaion. Arropa dotore haiek jantzi eta herrira jaitsi zenean, herritarrek ez zuten ezagutu.

Dirurik ez zeukanez arropa dotoreak saltzea erabaki zuen eta etxean zituen arropa guztiak lakura

eraman zituen eta berri-berriak eta dotoreak atera zitzaizkion berriro ere. Arropa berriak saltzeko denda bat jarri zuen.

Baina egun batean aberats batek ikusi zuen zer egiten zuen eta berak ere berdina egin zuen baina arropa zaharrekin egin beharrean berri-berriekin. Atera zituenean arropa haiek zaharrak atera zitzaizkion. Etorri zen dendaria eta benetako pobrea zela pentsatu zuen eta bere etxera eraman zuen.

Handik aurrera poz-pozik bizi izan ziren denak.

EGILEA: Beñat Bilbao Landa
1. maila - 7 urte
Seber Altube Ikastola



# ANE OLAETA ETA XABIER ZARRABEITIA

**L.H. 1. zikloa** * "Dinosauro belarjalea"

[ Kirola egitea pilo bat gustatzen zait ]
[ Niri lagunekin futbolean ibiltzea da gehien gustatzen zaidana ]

## DINOSAURO BELARJALEA

Behin batean bazen dinosauro bat eta, badakizue zelakoa zen? Ba, oso handia eta potoloa, beti haragia jaten egoten zen eta. Gainera dinosauroak ere jaten zituen. Egun osoan egoten zen jaten. Hain potoloa zenez ezin zuen korrika egin beste dinosauroak harrapatzeko, horregatik besteek "dino-handi" deitzen zioten.

Egun batean dinosauro bat hurbildu zitzaion eta galdetu zion:

- Zergatik zara hain lodia?
- Haragi asko jaten dudalako.
- Orduan, nola mugitzen zara?
- Ba, lehen arin-arin, gero astiro-astiro eta orain ezin dut ibili ere ez. Baina, zu ez zara beldur nire ondoan... nik dinosauroak jaten ditut!!!
- Baina ni zurekin jolastera etorri naiz!!!
- Ederto, orain lagun bat daukat.

Eta egun horretatik aurrera "dino-handik" belarra jatea eta ez haragia erabaki zuen. Horrela egunak pasatzen joan ziren eta gero eta argalago bihurtu zen. Beste dinosauroek izena aldatu zioten eta orduan "gure dino" deitzen zioten beti.







## ANAITZ GARCÍA LARRUZEA

**L.H. 1. zikloa** * "Mutiko baten ilusioa"

[ Athletic-eko jokalaria izatea gustatuko litzaidake ]

### Mutiko baten ilusioa

Egun batean mutiko bat kalean zegoen negar eta negar. Haurrak arazo bat zeukan, oso txikia zenez ezin zuen saskiboloira jolastu. Talde batean parte hartzea zen bere ilusio bakarra. Txiki-txikia izateagatik, inorkez zion aukerarik ematen. Halako batean trajedun gizon bat hurbildu zitzaion. Mutikotxoak bere arazoa azaldu zion. Gizon dotore hark lasai egoteko esan zion, berak emango ziola jolasteko aukera.

Antza denez, Euskal Herriko saskibaloiko talde famatu baten entrenatzailea zen. Mutikoa pozaren-pozez saltoka eta txaloka hasi zen. Hortik aurrera mutila saskibaloiko jokalari ona bihurtu zen, oso trebea eta langilea

zelako, nahiz eta oso txikia izan. Eta egia ala gezurra begi bien artean sudurra.





# ALIZE OLAZAR INTXAUSTI

**L.H. 1. zikloa** * "Katua"

[ Jolastea eta ipuinak idaztea gustoko dut ]



KATUA

Bazen behin katu bat. Beti katxuskolak jaten zituena.

Beti jolas orduan katxuskolak jaten aritzen zen

sirena jo arte.

Egun batean arbola batera igotzen pentsatu zuen,

baina ez zekanez katxuskolik ezin zuen zuhaitze-

tara igon

Etxera keldu zenean amari esan zion:

- Ama, ama! Ezin naiz zuhaitzetara igon.

- Noski! Baina katxuskolak jateari utzi badiozu

ahal izango zara igon- erantzun zion amak.

Arkumeari utzi zion katajaskolak igotzen eta ordubetean igo-

tzen geroztik dakienez gorago igotzen zen.

ADH





# OIER ALBERDI RODRIGO

**L.H. 1. zikloa** * "Lepoluze-tapaukaluze"

[ Oso gustoko dut animaliekin jolastea, marraztea, ikertzea... ]





# Imanol Ziluaga Esteban eta Ander Egiarte Sánchez

**L.H. 1. zikloa** * "Tigre txikia"

[ Animaliak asko maite ditut ]
[ Animaliak nire lagunak dira ]

## TIGRE TXIKIA

Bazen behin tigre txiki bat 4 zentimetro neurtzen zituena, oso mañoñoñoa zen, txikia eta polita. Egun batean gizon batzuk etorri ziren oihanera, beraien herriko zoora eroateko, tigre txiki baten bila. Hartu zuten tigre txikia eta Kamioiara sartu zuten. Tigre txikiaren aita bere bila zebilen eta ez zuenean topatzen lehoiari galdetu zion beren Kumea ikusi duen. Lehoiak elefanteari



galdetzeko esan zion bera ehizan ibili zala baina lagunduko ziola, ziola, topatzen. Elefanteak kamioi bat ikusi zuela hurrunean eta behar bada kamiodunek eraango zutela esan zion. Ibili eta ibili denak batera joan ziren aurrera eta hurrun hurrunean non ikusten duten kamioia. Gizonek lo zeudela isil-isilean elefanteak bere tronparekin zabaldu zuen kamioiaren atzeko atea eta han zegoen lo tigre txikia. Tigre amak hartu zuen eta oso pozik bizi ziren handik aurrera.





# Elene Egiarte eta Beñat Fernández

**L.H. 1. zikloa** * "Txispas eta hegazkin berria"

[ Nik handitan andereñoa izan nahi dut ]
[ Nik handitan pilotu izan nahi dut ]

## Txispas eta hegazkin berria

Txispas txakurra zen eta kale gorrian zegoen, baina egun batean ume batek Txispas hartu eta etxera eraman zuen. Etxean geratu zen betiko baina erregeek hegazkin-te ledirigidoa ekarri ziotenetik mutikoari ez zion kasurik egiten. Ez zion jaten ematen, ez zion urik ematen... eta azkenean hil egin zen. Umeak negar eta negar egiten zuen baina ez zuen hartu. Hurrengo egunean Jaungoikoak beste aukera bat eman zion, ordutik aurrera beti ondo moldatu ziren.

Elene Egiarte L.H. 2 A
Beñat Fernandez
L.H. 2-A





# ANE BELÉN RUIZ LEJARCEGUI

**L.H. 2. zikloa** ❈ "Elena, herensuge aurkitzailea"

[ Niri irakurtzeaz gain, margolanak egitea gustatzen zait ]

## ELENA, HERENSUGE AURKITZAILEA

Bazen behin Elena izeneko neska bat.
Elena, herensuge aurkitzailea zen eta bere gurasoekin bizi zen.
Egun batean, Luzia, ahizpa tikia, etxetik desagertu egin zenez, gurasoak oso kezkaturik zeuden. Horrela, Elena, bere bila joan egin zen.
Elenak herensuge batek bahitu zuela uste zuen eta halaxe zen.
Bat-batean, herensuge handi bat hegaz igaro zen eta Elenak jarraitu egin zion.
Orduan, kobazulo batera heldu ziren. Bertan, Luzia, herensugea eta herensuge kumeak zeuden.
Orain bai ulertzen dudala! -Elenak zihoan.

- Herensugea, Luziak bahitu zuen herensuge
Kumeak elikatzeko!

Hurrengo egunean, Elena herrira itzuli zen.
Herritarrei, gertatutakoa Kontatu ondoren,
herensugearen aurka joateko azaldu zien
baina ez zioten Kasurik egin.

- Herensugea dagoela?
- Ja, ja, ja! barrezka erantzun zioten.

Bere gurasoek, ordea, bai sinetsi ziotela eta
alabatxoari laguntza eskeini zien.
Elkarrekin Kobazuloko atarira heldu zirenean,
aita Bartolo eta ama Eguzki zain geratu
ziren, Elenaren esana betetzeko, laguntzeko
prest.

Elena Kobazulora sartu zenean, herensugea
haserreturik Elenaren atzetik Kanporantz
Korrika zihoan.

Kanporatzerakoan, herensugea hankaz gora geratu zen Eguzkik sartoginkoda edarra eman zion eta.

Horrela, herensuge kumeak hartu eta herensuge klinikara eraman zituzten.

Etxera itzuli zirenean, Luzia oheratu zen eta amak hauxe esan zion:

-Luzia ondo zaude?

- Bai ederto bat[e]n! - Lasai egon zaitezte.

Biharamunean, denak goiz esnatu ziren Elenari akerak emateko. Amak gozari berezia prestatu zien denak elkarrekin zeudelako. Gainera, egun hura familiarentzat ahaztezina izan zen.

Ane Belen



# Xabier Bengoa Bilbao

**L.H. 2. zikloa** * "Zirip iratxo magikoa eta Madam sorgiña"

[ Txikitan hegazkineko pilotoa izan nahi nuen,
baina orain saskibaloiko jokalaria ]



ZIRIP IRATXO MAJIKOA ETA MADAN SORGINA

Bazen behin Zirip izeneko iratxo majiko bat. Ziripek behartsuei eta bakarrik bizitzen ziren pertsonei laguntzen zien. Zirip Kobazulo txiki eta estu batean bizi zen.

Ziripek arazotxo bat zeukan. Bere Kobazuloaren ondoan bizi zen sorgin gaiztoak bere lana zapuztu nahi zuen beti. Sorgina Madan deitzen zen. Madan sorginak ez zuen onartzen besteak pozik bizitzea. Egun batean Madan sorginak Zirip iratxoari bere kobazulotik eta herritik aldendu nahian broustorio bat etorri zitzaion eta esan zuen:

– Iratxo hori badakit zelan aldendu! Nire magiari esker basa sorgindu eta misteriotsua bidaliko dut – eta hala egin zuen. Zirip oso beldurtuta zegoen, Ziripek hotsak entzuten zituen basa sorginduan. Bat batean argi

distiratsua ikusi zuen. Argi hura Madam sorgina zen eta esan zion:

- Baso honetatik irten nahi baduzu ni menperatu beharko nauzu. Eta Ziripek esan zuen;
- Pertsona pobreengatik egingo dut.

Orduan Ziripek izpi majiko bat bota eta Madam sorgina betirako desagertu zen. Ondoren Zirip etxera abiatu zen eta betiko moduan zoriona eta laguntza ematen jarraitu zuen.

Hala bazan edo ez bazan sar dadila iratxoen plazan.





# Nerea Arejita Abaitua

**L.H. 2. zikloa** * "Biolontxelo magikoa"

[ Biolontxelo jole famatua izan nahi dut ]

Nerea Arejita

## Biolontxelo magikoa

Txikitatik gustatu zitzaidan biolontxeloa. Gurasoak ez ziren aberatsak eta Errege Magoei eskatzeko kontuz entzuten nuen urtero. Zelako nahigabea! Negar batean ematen nuen Errege eguneko gau hori hiru urtetan. Behin panpina, hurrengo urtean puzzlea, hirugarrenean patinak. Patinak! Baina biolontxeloaren arrastorik ez!

Azkenengo gauean, malkoen artean, loak hartu eta ametsa izan nuen. Nire biolontxeloa ikusi nuen, zahartuta, hautsez beteta, denda txiki baten bazterrean.

Biolontxeloak ahots goxoaz esan zidan:

-Etorri eta eraman nazazu etxera. Artista bihurtuko zaitut!

Itzartu, altxatu eta gurasoak konbentzitu nituen. Goizean goiz erosi genuen, merke, bigarren eskukoa zelako.



Egia izan zen! Biolontxeloak magia zeukan!

Hasiera-hasieratik ona izan nintzen jotzen. Musika Eskolan egindako kontzertuetan txalorik handienak jasotzen nituen. Biolontxelo magikoaren sekretua ondo gorde nuen. Zoriontsua nintzen!

Handitu eta txelo handiagoa behar nuen. Ikaratu egin nintzen, magia galduko nuen.

Dardarka hasi nintzen instrumentu berriaren aurrean, jotzen hasi eta bikain egin nuen. Orduan konturatu nintzen benetako magia neure barnean zegoela.

Urteak pasatu dira baina beti gogoratzen naiz biolontxelo magikoaz mundu osoan zehar kontzertuak ematen ditudan bakoitzean.





# MIKEL PORRAS LARRINAGA

**L.H. 2. zikloa** ✣ "Busturialdeko angulak"

[ Natura asko gustatzen zait
eta bertako animalia eta landareak aztertzea ]

## Busturialdeko angulak

Orain dela urte batzuk Busturialdeko ibai estuetan angula ugari-ugari bizi ziren. Inguruetako herritar asko gauero-gauero ibai estuetara jaisten ziren angulak harrapatzera; haiei beraien ezkutalekuetatik gauez ateratzea gustatzen zitzaien. Denbora pasa hala, jendea gero eta angula gehiago harrapatzen hasi zen. Hau dela eta angula kopurua asko gutxitzen hasi zen. Arazo honi, irtenbide bat aurkitzeko, gau batean angula guztiek elkartzea erabaki zuten. Denbora askoz hitzegin ondoren itsasora bizitzen joatea erabaki zuten. Gauez, milioi bat angula ingurukoa, talde handi bat bildu eta itsasorako bidea hartu zuten. Bidean zihoazela bale batekin topo egin zuten. Hau ikustean, angula gazteenak esan zion bere amari:

-Begira ama! Ez ahal da hori Laidatora etortzen den Elantxobeko mutil potoloa?

— A, bai! moreak ekarriko zuen honaino — erantzun zion amak:

Baina halako batean baleak ahoa zabaldu zuen eta ahokada batez angulen erdiak irentsi zituen.

Orduan bizirik geratu zirenak arrapalada batean buelta hartu eta etxerantz itzuli ziren.

Etxera itzultzean berriz bildu ziren konponbide berri bat aurkitzeko asmoz.

— Argi dago ezin garela bai ertzetan geratu, gizonen kazuelatan bukatu nahi ez baldin badugu behintzat — esan zuen angula bizardun batek.

— Eta itsaso zabalera ere ezin gaitezke itzuli arris-kui gehiegi dago guretzat bertan — esan zuen beste angula batek.

Azkenik irtenbide bezala lur azpian sartzea erabaki zuten. Lurrazpian ez dagoelako ez arrantzalerik eta balearik ere. Beraz gaur egun angula gehienak lur azpian bizi dira. Jonde askok uste du

Gure ortutako lur azpian dauden animaliak ziza-
reak direla baina benetan angulak dira. Harrigarria
da, baina batzuk mila euro ordaintzen dute angu-
la kilo batengatik baina ez dakite ortuan daukatela
dohainik

Mikel Ponas Larrinaga






# Hegoa Ibazeta eta Garazi Uriona

**L.H. 2. zikloa** * "Amazoniako misterioa"

[ Irakurri eta idatziz gain
lagunekin jolastea gustatzen zaigu ]

## Amazoniako misterioa

Estatu Batuetako herri batean bazegoen institutu bat, ikasleak 16-18 urte bitartekoak ziren. Behin andereñoak paper bat eman zien; nahi zutenek Amazoniara 3 asteko txangoa egiteko aukera izango zuten. Ikasleak papera etxera eraman zutenean 10 bat apuntatu ziren.

Heldu zen eguna. Abioia hartu eta Amazoniara abiatu ziren. Andereñoak taldetan launako jarri zituen eta, talde batean Joane, Amaia, Josu eta Kepa zeuden. Talde bakoitzari 5 landare desberdin biltzeko esan zien.

Hori egindakoan, kanpadendak bilatzen zeudela, galdu egin ziren. Ura edatera joan zirenean, 20 metroko eta 2 buruko suge erraldoia ikusi zuten. Sugeak buru batean hiru begi zituen eta bestean bi. Hiru begi zituenak begi garrantzitsu bat zeukan eta norbaitek hartzen bazuen, begiak altxorrera gidatuko zuen, eta Amazonia sugearengatik libratuko zen. Sugea beraiek jaten saiatu zen baina alferrik izan zen, jadanik alde egin zutelako.

Gaua iritsi zen eta ez zuten non lo egiterik izan. Zuhaitz batera igo eta esan zien zuhaitzak:

- Barkatu, ez igon nire enbor gainera mesedez,
- A!, ikusi duzue sugea?

Zuhaitzak begiaren berri eman zieten. Ikasleak
oso arduratuta geratu ziren.
Eguna argitu zuen eta janariaren bila zihoazela,
Josu eta Kepa desagertu egin ziren. Neskak frutak
jaten ase ondoren, begiaren bila joan ziren. Erre-
karen alboan zeudela sugea uretan ikusi zuten eta
plan bat burura tu zitzaien.
Joana eta Arrate samara hurbildu ziren eta
bertan zeuden ileei ocatuta gorantz eskalatzen hasi
ziren. Sugea mugitzen hasi zen eta Joanek eta A-
rratek gogor eutsi behar izan zieten ileei. Ia-
ia iritsi ziren. Bi pausu eman zituzten eta ja-
danik helduta zeuden!
Asko kostatu zitzaien begia hartzea, baina lortu
zuten. Sugea 3 begi barik geratu zenean, zerraldo
jausi eta uretan hondoratu zen.
Begiak gidatu zituen altxorraren lekura arte.
Bidean zarata asko entzuten ziren. Josu eta Ke-
pa ziren Elkarrekin topo egin zutenean denak po-
zez zoratzen zeuden. Joanek eta Arratek dena
kontatu zien eta aurrera segitu zuten.
Horma zahar batera heldu ziren. Horma zahar
horretan begia sartzeko marka zegoen eta Joanek
begia bere lekuan sartu zuenean, atea za   zen.
Urre eta zilar mordoa zegoen eta bakoitzak
10 bat hartu zituen.
Egurrak bilatzen hasi ziren txalupa egiteko.

Amaitu zutenean denak etxera itzuli ziren. Ordu asko behar izan zituzten, baina lortu zuten. Harri bitxiak ondo gorde zituzten eta denak adeato bizi izan ziren.





# Garoa Musatadi Irazabal

**L.H. 2. zikloa** ✻ "Piratak eta izurdeak"

[ Niri marrazkiak egitea asko gustatzen
zaidanez andereño izan nahi dut ]



PIRATAK ETA IZURDEAK

Bazen behin, pirata talde bat. Kapitainak Patxi zuen izena. Patxi gizon bizardun, potoloa zen, egurrezko hanka bat eta partxe bat begian zeuzkana. Beti ezpata bat eramaten zuen. Bost marinel zituen. Barkoarengoialdean bandera beltz bat zegoen eta banderaren gainean lumagorri loroa egoten zen beti.

Egun batean izurdeak etorri ziren eta izurdeek esan nahi zuten, dakitela non dagoen altxor bat. Loroak ulertu egin zuen eta kapitainari esatera joan zen. Patxik ez zekien sinestu ala ez, baina marinelekin hitz egin zuen eta marinelek joateko esan zioten, eta izurdeen atzetik joan ziren.

Halako batean, irla batera heldu ziren eta Patxi barkutik jaisterakoan hondartzan zerbait zegoela sumatu zuen bere egurrezko hankarekin. Patxik marinelei deitu eta palekin hura kentzen hasi ziren. Bapatean altxor kutxa handi bat zegoen. Kaxa ireki eta han barruan pila bat urre, bitxi eta azpi-azpian itsasoko karakola eder bat zegoen. Denen artean banatu zuten altxorra eta poz-pozik bizi izan ziren denak batera.

Garoa Musatadi Irazabal
3. m.


Garoa Musatadi
Irazabal
3. m.



# Joane Aberasturi Akaiturri

**L.H. 2. zikloa** ✤ "Marrubitan!"

[ Orain, lagunekin euskaraz jolastea gogoko dot eta nagusitan, pediatra izatea, umeak asko gustatzen jatazalako ]

## Marrubitan!

Udaberriko egun batean, RING-RING entzun ondoren, Jone neskatxa disdiratsua, ohetik jeiki zen.

Goizeko zazpiak ziren. Bere zereginak egin eta ziztu bizian eskolarantz abiatu zen. Kaleak hutsik zeuden.

- Hau bai harraroa! -esan zion bere buruari.

Urrunean andrazko bat ikusi zuen eta hurbiltzean hauxe esan zion:

- Neskato, nora zoaz hain goiz zorroa lepoan duzula?
- Nora? Eskolara!
- Eskolara? Zer diozu? Zapatua da eta!
- Joan zaitez berehala etxera, berotara!

Etxera heldu zenean, telebista piztu arren, irakurtzea gogoko zuenez, liburutxoa irakurtzen hasi zen.

Bat-batean, hots bat entzun zuen. Ama zen.

- Jone maitea, gaur larunbata denez, joan zaitez basora marrubitan!
- Bai amatxo, pozarren gainera!

Beraz, motxilan otartekoa, linterna eta eskurrak sartu zituen. Amatxo agurtu eta tipi-tapa, tipi-tapa marrubi gorri-gorrien bila zihoan.



-Hau nekea!

Basoa, dotore-dotore jantzita egon arren, ez zuen marrubirik aurkitu.

Berehala, txoriko bat hurbildu zitzaion Kantu-Kantari:

- Txio, txio, zertan zabiltza?
- Marru-marrulitan! era bat beldurturik erantzun zion.
- Egon zaitez lasai! Neuk lagunduko dizut eta!

Elkarrekin zihoazela, non zetorren azeri buztan luzea. Korrikan, "zanba" belartian ostondu ondoren, galdu egin ziren.

Dardarka, altxatzerakoan, hara nondik basurde potolo jauna hurbildu zitzaien zera esanez:



- Marrubiak bilatzen zabiltzatela galdu egin zarete ezta?
- Halaxe da! erantzun ondoren basurdeak laguntza eskeini zien, baina trukea eskatuz.

Momentu horretan, Joneri motxilan eskurrak zituela burutatu zitzaion eta eman egin zizkion. Hori dela eta, taldekide bat gehiago zuten.

Geroago, landa berde eta argitsu batean, ardi galdu batekin topo egin zuten. Bakar-bakarrik zegoenez, beraiekin eraman zuten. Ardiak bere burua aurkeztu zuen:



- Ni, Bekezike andereñoa naiz eta basotik irteteko Merlin aztiaren laguntza behar izango dugula espero dut. Gainera, hemendik hurbil dugu bere etxetxoa, perretxikoa, hain zuzen ere!

Hara heldu zirenean, Merlinek lasaitu egin zituen.

Hau da, basoa natura denez, zuek errespetatu egin dituzue eta ez da magiarik behar basotik irteteko, laguntza baino!

Beraz, hor aurreko landa hori marrubiz josita dagoenez, goazen denok elkarrekin marrubiak batzen!

Denok pozarren salto-saltoka, kontu-kontari elkarrekin joan egin ziren eta larunbateko helburua denen laguntasunarekin bete egin zuten.



# LEIRE GORRITI

**L.H. 2. zikloa** ✤ "Joseren denda txikia"

[ Niri patinatzea eta animaliak gustatzen zaizkit ]

## JOSEREN DENDA TXIKIA





Bazen behin, urruneko herrialde batean zapata denda txiki bat. Denda honetan Jose zapatariak egiten zuen lan. Bere aitonak, bere aitari zapatak, espartinak, abarkak... egiten erakutsi zizkion, eta orain dela berrogei urte bere aitak berari.

Josek lan egiteko betaurreko beltzak, amantal urdin ilun bat, mailu zahar bat, artaziak, listaria... erabiltzen zituen.

Jose ez zegoen ezkonduta. ez zeukan seme-alabarik, baina bazuen Pello deitzen zen lagun oso berezi bat. Pello egunero eskolara joan aurretik Joseren dendatik pasatzen zen egunon esatera.



Egun batean, Pello beti bezala egunon esaten joan zen Joserengana eta Pellori iruditu zitzaion egun hartan



Zapataria triste zegoela eta eskolatik irten eta beragana joan zen berriz.

Pello zapata dendara iritsi zenean denda hankaz gora zegoela ikusi zuen. Orduan Pellok galdetu zion Joseri ea zertan zebilen, eta Josek erantzun zion zapatak biltzen zebilela denda itxi behar zuelako dirurik ez zuelako irabazten. Pello hitzik esan gabe, etxera joan zen eta bere aitonari kontatu zion Josek zapata denda itxi behar zuela.

Aitonak, Pellori azaldu zion, berak ere, orain dela hiru urte bere barazki denda itxi zuela ez zuelako dirurik irabazten, orain dela bost urte herri ondoan eraiki zuten hipermerkatu erraldoira joaten delako jendea erosten.



Pellori ideia bat bururatu zitzaion, denda txikietako jabe guztiak elkartzea Batzar bat egiteko. Batzarrean pentsatu zuten: Herriko denda guztiak txukun jartzea, merkealdiak urte osoan irautea, dendariak dotore janztea, dendetako erakus-mahaietan gozokiak jartzea, zapatak erosi ondoren betuna oparitzea...

Batzarrean pentsatutako guztiari esker, herri osoko denda txikiak aurrera jarraitu zuten, baita Joseren zapata dendak ere.



Leire Gorriti



# AINHOA ZARRABEITIA, OLATZ ARRIZABALAGA ETA PAULE URRUTXUA

**L.H. 2. zikloa** * "Berdel apoa"

[ Gorputz heziketako andereñoa izan nahi dut ]
[ Gimnastika erritmikoko entrenatzailea izan nahi nuke ] * [ Arteko irakaslea izan nahi nuke ]

## Berdel Apoa

Behin batean bazen Berdel deitzen zen apo bat. Oso pobrea zen, baina oso pozik bizi zen eta zeukan apurra herrikoekin banatzen zuen.

Egun batean, Berdelek erreka txiki bat aurkitu zuen etxe zahar baten aurrean. Berdel egarri zen eta errekara hurbildu zen. Etxe zahar horretatik, bat-batean, arratoi zahar bat agertu zen itxura susmagarriarekin. Arratoiak, erreka berea zela eta bertatik alde egiteko agindu zion Berdeli. Berdelek kasu egin zion, baina arratoia gezurretan zebilen, erreka ez zelako berarena. Berdelek bidea jarraitu zuen eta sagarrondo batekin topo egin zuen. Bertan zizare bat zegoen eta honek ere Berdeli ziria sartu zion.

Berdel egarriz eta gosez zegoen, sagarra jan ezin izan zuelako eta ibiltzen jarraitu zuen. Oraingoan katua eta txoriarekin aurkitu zen.

Txoria eta katua bere lagunak ziren eta Berdelek gertatutakoa kontatu zien. Katuak eta txoriak bazekiten erreka eta sagarrondoa denenak zirela eta gezurtiei beraiek merezi zuten zigorra ematea erabaki zuten. Katua etxe zaharrera joan zen eta arratoiak, nola ez, ihes egin zuen segituan. Txoria, aldiz, sagarrondora joan zen eta zizarea beldurtu zuen. Arratoia eta zizarea ez ziren herri-ra berriz bueltatu.

Orduan Berdelek sagarrak eta ura herrikoen artean banatu zituen. Eta, noski, katuari eta txori-ari ere beraien zatia eta eskerrak eman zizkien.





# ANA ARAMBURU IBARLUCEA

**L.H. 2. zikloa** ✻ "Lirina gitarratxoa"

[ Musika mundua gustatzen zait ]

## LIRINA GITARRATXOA

Bazen behin orkesta batean jotzen zuten neska bi, Maria eta Kristina, eta antzokira sartzerakoan:

- Hau bai antzoki polita
- Bai, polita eta handia. Jende pila bat etorriko da gaur gu ikustera.
- Ahhh! Urduri jartzen naiz pentsatu baino ez...
- Zergatik Maria? Beste kontzertu bat baino ez dala...
- Bai Kristina, baina beti jotzen dugu Gernikako antzokietan eta Bilbo oso handia da...
- Bahhh tranquila, betiko moduan jo eta listo...
- Begira, hemen dator gure zuzendaria....

Bitartean antzoki zaharreko ilun batean dago gure gitarratxoa Lirina, oso zaharra da eta antzinatik ez du inork hartu, beraiekin kontzertuan jotzeko Lirina gitarra oso oso zen bere garaian eta oso famatu musikarik jotzen zuen kontzertuak Lirinarekin, baina egun batean erdi apurtuta geratu zen antzokiaren biltegian eta ordutik aurrera han geratu zen triste eta isilik.

Tak, tak, tak, egiten du zuzendariak:

- Denok gaude prest entsegua hasteko?
- Baaiiiii! Erantzun diote denek Maria izan ezik eta isil isilik esaten dio Kristinari...
- Kristina Kristina non utzi dut nire gitarra? Ez dut aurkitzen
- Zuzendaria, zuzendaria!!! Uste dut nire gitarra galdu dudala

Bat - batean, argi jila bat sartu da antzerkiaren leihotik.
Zarata asko entzuten du Lirinak eta bere aurrean dagoen gizonak esaten dio: - Ahhh! Hemen zaude, neskatxa bat negarrez dago kanpoan bere gitarra galdu duelako baina zu izango zara bere arazoaren irtenbidea zelako poza hartu zuen Lirinak!!! Azkenean musikari batek jolsa ezuen berarekin. Mariak ez zuen ulertzen zergatik joten zuen ain ondo baina ziur zegoen bere gitarra berriagatik zela. Kontzertuaren egunean Lirinak eta mariak arrakasta handia eduki zuten, ordutik aurrera elkarrekin joaten ziren kontzertu guztietara.

